| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO EKAINAREN 19AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 19 DE JUNIO DE 2018.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Keltse Eiguren Alberdi And.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko ekainaren hemeretzian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a diecinueve de junio de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el

dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**265.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO EKAINAREN 12AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

**265.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 12 DE JUNIO DE 2018.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko ekainaren 12ko bilerakoa, hain zuzen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 12 de junio de 2018.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**266.- ESPEDIENTEA IREKITZEA: ESLEIPENA EGITEKO GUNE PUBLIKOETAKO ERAIKINETAN KANPOKO ARGITERIAREN MANTENURAKO, PLEGUAK ONARTZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO.**

**266.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO EXTERIOR EN ESPACIOS PÚBLICOS, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LlILEHENENGOA: UDALERRIKO ESPAZIO PUBLIKOETAN KANPO-ARGIZTAPENEKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko arauzko izapidea hasteko baimena ematea.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO EXTERIOR EN ESPACIOS PÚBLICOS DEL MUNICIPIO.

Kontratua bi urtean egikarituko da, hura sinatzen denetik kontatzen hasita, eta segidako urtebeteko bi luzapen izan ahalko ditu.

El plazo de ejecución del contrato será de dos años, a contar desde su firma, siendo prorrogable por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos.

Kontratuaren gehieneko prezioa

El importe máximo del contrato

512.314,62 eurokoa da urtean, % 21eko BEZa barne. Zenbateko hori bi zatitan banatzen da (tratamendu eta puntuazio ezberdinak izango dituztenak):

asciende a 512.314,62 euros/año, 21% de I.V.A. incluido. Esta cantidad se desglosa en dos partes (que tendrán tratamiento y puntuación independientes):

a) 494.164,62 euro urtean, BEZa barne, nahitaez egingo diren LAN IRAUNKORREI dagokien kontratu-zatiarenak dira, hau da, segurtasun osoz egingo direnak. Lizitatzaileek zenbateko hori hobetu ahalko dute.

a) 494.164,62 euros/año, I.V.A. incluido, corresponden a la parte del contrato referida a los TRABAJOS PERMANENTES, es decir, aquéllos que se van a realizar con toda seguridad. Esta cantidad podrá ser mejorada por los licitadores.

b) 18.150 euro urtean, BEZa barne, LAN OSAGARRIEN kontratu-zatiari dagozkio, hau da, sortzen diren beharrizanetara baldintzatutako lanak hartuko ditu barne eta aleko prezioen terminoetan formulatzen da.

b) 18.150 euros/año, I.V.A incluido, corresponden a la parte del contrato referida a TRABAJOS COMPLEMENTARIOS, es decir, trabajos cuya realización está condicionada a las necesidades que vayan surgiendo y que se formula en términos de precios unitarios.

BIGARRENA: Administrazio-kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoen pleguak onestea.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA: Aipatutako zerbitzuaren kontrataziotik sortutako betebeharrei aurre egiteko gastua baimentzea, 1.024.629,24 euro gehienez ere.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe máximo de 1.024.629,24 euros.

LAUGARRENA: Obra publikoen teknikari den Roberto Novales Andrés jauna izendatzea kontratuaren arduradun.

CUARTO: Designar como responsable del contrato al Técnico de obras públicas, D. Roberto Novales Andrés.

**267.- ESLEIPENA: GETXOKO HIRIKO UDALEKUETAKO ANIMAZIO-ZERBITZUA.**

**267.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO EN GETXO.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de

proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

---

**Egitatezko aurrekariak**

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2018/03/27an hartu zuen 128. Erabakiaren bidez, GETXOKO HIRIKO UDALEKUETAKO ANIMAZIO-ZERBITZUA esleitzeko izapideak hasi ziren, %10eko BEZa barne, **110.000€ (EHUN ETA HAMAR MILA euro)** izango da, 55.000€ (BERROGEITA HAMABOST MILA euro) urtean. Era berean, Prozedura Irekiaren bidez kontratatzea erabaki zen.

BIGARRENA.- Aipatutako kontratuaren ezaugarri nagusiak hurrengoak dira:

- Kontratua gauzatzeko epea 2 (BI) URTEKOA izango da, kontratua sinatzen denetik aurrera zenbatuta. Kontratua ezin izango da luzatu. Kontratuaren prestazioaren gauzatze materiala urte bakoitzeko EKAINA eta UZTAILA hilabeteetan egingo da.

- Kontratuaren balio estimatua **100.000€ (EHUN MILA eurokoa)** da.

HIRUGARRENA.- 2018/04/04an lizitazio-iragarkia Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman argitaratu zen. Baita Getxoko Udaleko Kontratugilearen Profilean ere.

**Antecedentes de hecho**

PRIMERO.- Por Acuerdo nº128 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 27/03/2018 se inició la tramitación para la adjudicación del SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO DE GETXO, por importe de 110.000€ (CIENTO DIEZ MIL euros), a razón de 55.000€ (CINCUENTA Y CINCO MIL euros) anuales, IVA del 10% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Abierto.

SEGUNDO.- Las características principales del contrato de referencia son las siguientes:

- El plazo de ejecución del contrato será de 2 (DOS) AÑOS, a contar desde la fecha de la firma del mismo. El contrato no será susceptible de prórroga. La ejecución material de las prestaciones del contrato se realizará en los meses de JUNIO y JULIO de cada año.

- El valor estimado del contrato asciende a la cuantía de **100.000€ (CIEN MIL euros)**.

TERCERO.- Con fecha 04/04/2018 se publica el anuncio de licitación la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. También en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Getxo.

LAUGARRENA.- 2018/04/20an, Udaleko Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan, aurkeztutako proposamenen dokumentazio orokorra jasotzen zuten LEHENENGO GUTUNAZALAK ireki ziren jendaurrean; hori egin zen, kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia betez, aplikaziokoak diren udal-xedapenak betez eta aipatutako kontratua esleitzeko espedienteko administrazio-baldintza zehatzen agirietan jasotakoa betez. Zortzi enpresek aurkeztu zituzten proposamenak lizitaziora:

CUARTO.- Con fecha 20/04/2018, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, de los SOBRES PRIMERO que contenían la Documentación General de las proposiciones presentadas. Se presentan 8 empresas a la licitación:

KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.
ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA
KIROLETAN SPORT
SUSPERGINTZA ELKARTEA
ZIENTZIKASI
AISIBIZIA ELKARTEA
KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L.
GARDABERA, S.L.

BOSGARRENA.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.; KIROLETAN SPORT; ZIENTZIKASI; AISIBIZIA ELKARTEA; KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L. eta GARDABERA, S.L. enpresek aurkeztutako dokumentazioak akatsak eta hutsuneak dituela ikusten da. Horiek zuzentzeko 3 (HIRU) egun baliodunetako epea ematen zaie.

QUINTO.- Examinada la documentación presentada se observa que las ofertas presentadas por las empresas KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.; KIROLETAN SPORT; ZIENTZIKASI; AISIBIZIA ELKARTEA; KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L. y GARDABERA, S.L. contienen errores y omisiones para cuya subsanación se les comunica que tienen un plazo de 3 (TRES) días hábiles.

SEIGARRENA.- 2018/04/27an BIGARREN GUTUNAZALAren irekiera egiten da. Bertan, AUTOMATIKOKI EBALUA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotzen dira. Emaitza hurrengoa da:

SEXTO.- Con fecha 27/04/2018 se procede a la apertura de los SOBRES SEGUNDO, que contienen los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br>EMPRESA | AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA<br>DOCUMENTACION PRESENTADA |
|---|---|
| | |

| | |
|---|---|
| **KEIMA ANIMAZIOA S.L.U.** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |
| **ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |
| **KIROLETAN SPORT** | ESKAINTZA TEKNIKOA/FERTA TÉCNICA |
| **SUSPERGINTZA ELKARTEA** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |
| **ZIENTZIKASI** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |
| **AISIBIZIA ELKARTEA** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |
| **KULTURBIDE GESTION SOCIOCULTURAL S.L.** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |
| **GARDABERA S.L.** | ESKAINTZA TEKNIKOA/OFERTA TÉCNICA |

Baldintza Administratiboen Pleguaren 21. atalean zehaztutakoari jarraituz, dokumentazioa foliatu egiten da eta Gazteria Zerbitzura bidaltzen da, non Adituen Batzordeari emango dion, balorazio teknikoa egin dezan.

Siguiendo con los trámites previstos en el apartado 21 del Pliego de Condiciones Administrativas, se procede a foliar la documentación y se remite la misma al Servicio de Juventud que la entregará al Comité de Expertos para su valoración técnica.

ZAZPIGARRENA.- 2018/05/15ean Adituen Batzordeak txostena igortzen du eskaintza ekonomikoa kontutan hartu gabe. Emaitza hurrengoa da:

SÉPTIMO.- Con fecha 15/05/2018, el Comité de Expertos emite informe sin tener en cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

| PROPUESTAS PRESENTADAS | PROGRAMA DE TRABAJO | | | | MEJORAS | **TOTAL** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Activida des día a día | Líneas transversale s | Programa alternativo | Protocolos | 2,5 puntos | **75 PUNTOS** |
| | 33,45 puntos | 22,3 puntos | 11,15 puntos | 5,60 puntos | | |
| ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA | 33,45 | 22,3 | 10 | 5,6 | 2 | **73,35** |
| SUSPERGINTZ A | 33,45 | 19 | 11,15 | 5,6 | 2,5 | **71,7** |
| KULTURBIDE | 33,45 | 22,3 | 5 | 4 | 2,5 | **67,25** |
| GARDABERA | 25 | 17 | 6 | 5,6 | 1,75 | **55,35** |
| AISIBIZIA ELKARTEA | 25 | 18 | 6 | 2,5 | 1,5 | **53** |
| KEIMA | 23 | 10 | 5 | 0 | 2 | **40** |
| KIROLETAN SPORT | 20 | 10 | 4 | 3 | 1 | **38** |
| ZIENTZIKASI | 22 | 6 | 5 | 2 | 0 | **35** |

ZORTZIGARRENA.- 2018/05/25eko Kontratazio Mahaian, Adituen Batzordeak igorritako txostena aztertu eta ontzat ematen da eta AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotzen zituen gutun-azala zabaldu zen, hurrengo emaitzarekin:

OCTAVO.- En la Mesa de Contratación de fecha 25/05/2018, es analizado y asumido el informe emitido por el Comité de Expertos y se procede a la apertura del sobre correspondiente a CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

| **EMPRESA** | **OFERTA ECONOMICA (Maximo 25 puntos) 100.000.-€/sin IVA para los 2 AÑOS** |
|---|---|
| ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA | 98.000,00 |
| SUSPERGINTZA | 99.800,00 |
| KULTURBIDE | 98.000,00 |
| GARDABERA | 99.684,46 |
| AISIBIZIA ELKARTEA | 99.998,00 |
| KEIMA | 98.000,00 |
| KIROLETAN SPORT | 84.000,00 |
| ZIENTZIKASI | 99.788,00 |

BEDERATZIGARRENA.- Kontratazio Mahaiko kideek, GETXOKO HIRIKO UDALEKUETAKO ANIMAZIO-ZERBITZUA, ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA enpresari (IFK G48304927) esleitzea proposatzen dute, kalitate-prezio harreman onena duen eskaintza aurkeztu duelako, hurrengo balorazio koadroa ikusita:

NOVENO.- Por los miembros que integran la Mesa de Contratación, proponen adjudicar el SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO DE GETXO a la razón social ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA con CIF: G48304927, al haber presentado la proposición que ha resultado con una mejor relación calidad-precio, de acuerdo con el siguiente cuadro de valoración:

| **ENPRESA EMPRESA** | **IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK CRITERIOS NO AUTOMATICOS** | **IRIZPIDE AUTOMATIKOAK CRITERIOS AUTOMÁTICOS** | **PUNTUAZIO TOTALA PUNTUACION TOTAL** |
|---|---|---|---|
| ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA | **73,35** | **21,43** | **94,78** |
| SUSPERGINTZA | **71,7** | **21,04** | **92,74** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| KULTURBIDE | **67,25** | **21,43** | **88,68** |
| GARDABERA | **55,35** | **21,07** | **76,42** |
| AISIBIZIA ELKARTEA | **53** | **21,00** | **74,00** |
| KEIMA | **40** | **21,43** | **61,43** |
| KIROLETAN SPORT | **38** | **25,00** | **63,00** |
| ZIENTZIKASI | **35** | **21,04** | **56,04** |

HAMARGARRENA.- Aurreko guztia ikusita, 2018/05/28an, esleipendunari SPKLTBaren 140.3 eta 150. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, errekerimendua egin zitzaion, hau da:

a) Beren gaitasun juridikoaren, jarduteko eta kontratatzeko ahalmenaren frogagiria, hau da, baldintza ekonomikoen eta administrazio-baldintzen pleguaren 20.1. idatz-zatian zerrendatutako agiriak.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

c) Behin betiko bermea eratu izana, 4.900€tan (LAU MILA ETA BEDERATZIEHUN eurotan).

Espedientean jasota dago enpresak aurrez aipatutako errekerimendua betetzean aurkeztutako dokumentazioa.

DÉCIMO.- Visto cuanto antecede, en fecha 28/05/2018 se requiere al adjudicatario a los efectos de lo dispuesto en los artículos 140.3 y 150 de la LCSP, a saber:

a) Acreditación documental de su capacidad jurídica y de obrar y su habilitación para contratar, es decir, los documentos relacionados en el apartado 20.1 del Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas.

b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

c) Haber constituido la garantía definitiva por importe de 4.900€ (CUATRO MIL NOVECIENTOS euros).

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

**ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

I.- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL). Honek espainiar ordenamendu juridikoan sartzen ditu Europar Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Direktibak.

II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak onetsitakoa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateraginaren aurka egiten ez duen guztian.

III.- Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 LEDak onartutako testu bat egina eta aplikatu behar den eta horri lotuta dagoen gainerako legeria; Euskadiko tokiko erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta aplikatu behar den eta lotura daukan gainerako legeria.

IV.- Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio proposatzen den adjudikazioa egitea, kontratazio-espediente honetan kontratazio-organo eskuduna baita.

Kontratazio, Informazio Sietemetako eta Kiroletako Arloko zinegotzi arduradunak hala eskatuta, Udaleko Gobernu Batzarrari honako hau igortzen zaio kontuan har dezan:

**AKORDIO PROPOSAMENA**

**Lehenengoa.-** GETXOKO HIRIKO UDALEKUETAKO ANIMAZIO-ZERBITZUA, ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA enpresari (IFK G48304927) esleituko zaio, 98.000€ren (LAUROGEITA HEMERZORTZI euroren) truke, urtean

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

I.- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (LCSP).

II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por RDL 781/1986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación; y la Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

**PROPUESTA DE ACUERDO**

**Primero.-** Adjudicar a la empresa ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA con CIF: G-48304927, el SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO DE GETXO, por 98.000€ (NOVENTA Y OCHO MIL euros), a

49.000€ (BERROGEITA BEDERATZI euro), BEZaz SALBUETSITA.

razón de 49.000€ (CUARENTA Y NUEVE MIL euros) anuales, IVA EXENTO.

Enpresak BEZa ordaintzeaz salbuetsita dagoelaren ziurtagiria aurkezten du.

La empresa presenta certificación de estar exenta del pago del IVA.

Kontratuaren gauzatze epea 2 (BI) URTETAKOA izango da, kontratua sinatzen den datatik zenbatuta.

El plazo de ejecución del contrato será de 2 (DOS) AÑOS, a contar desde la fecha de la firma del mismo.

Kontratua ezin izango da luzatu.

El contrato no será susceptible de prórroga.

Kontratuaren prestazioaren gauzatze materiala urte bakoitzeko EKAINA eta UZTAILA hilabeteetan egingo da.

La ejecución material de las prestaciones del contrato se realizará en los meses de JUNIO y JULIO de cada año.

**Bigarrena.-** Adjudikaziodunak kontratazio-zerbitzuko bulegoetara (Foruen kalea, 8) joan beharko du kontratua administrazioko agirian formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz; hori egiteko, hamabost laneguneko epea izango du, gehienez ere, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

**Segundo.-** El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 153 de la LCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen berri, baita Adituen Batzordeak 2018/05/15ean igorritako txostenaren kopia bat ere esleipen honetan parte hartu duten enpresa guztiei helaraziko zaie: KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.; ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA; KIROLETAN SPORT; SUSPERGINTZA ELKARTEA; ZIENTZIKASI; AISIBIZIA ELKARTEA; KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L. eta GARDABERA, S.L.

**Tercero.-** Notificar la presente resolución así como una copia del informe del Comité de Expertos de fecha 25/05/2018, a todas las empresas participantes en esta licitación: KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.; ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA; KIROLETAN SPORT; SUSPERGINTZA ELKARTEA; ZIENTZIKASI; AISIBIZIA ELKARTEA; KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L. y GARDABERA, S.L.

**268.- ESLEIPENA: ALGORTA ETORBIDEKO BERRURBANIZAZIO**

**268.- ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE**

**LANAK (TORRENE ETA MADRIANDRESENA ARTEAN) 2. FASEA ETA MARIANDRESENA KALEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarraren 96. erabakiaren bidez, 2018-03-06ko bilkuran hartua, espedientearen hasiera baimendu zen, ALGORTAKO ETORBIDEAREN (TORRENE ETA MARIANDRESENA ARTEAN) – 2. FASEA– ETA MARIANDRESENA KALEAREN BERRURBANIZAZIO OBRAK prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko, erabaki berean onetsi zen proiektu baten barruan dagoena.

Honako hauek dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Obraren aurrekontua, BEZa barne, 549.798,19 euro da, obra onesteko aurkeztu den proiektu teknikoaren arabera.
- Kontratua burutzeko epea 20 astekoa da gehienez, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Kontratuaren balioa 681.568,01 euro izango dela kalkulatzen da, kontuan izanik aldatu egin daitekeela, lizitazioaren zenbatekoa gehienez ere % 50ean gehituz, BEZa barne.

BIGARRENA.- Derrigorrezko lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018-03-07an.

Lizitazioaren epea amaitu zenean, bi enpresek eskaintza aurkeztu zuten:

**LA AVDA. ALGORTA (ENTRE TORRENE Y MARIANDRESENA) 2º FASE Y C/ MARIANDRESENA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por Acuerdo nº 96 adoptado por la Junta de Gobierno Local, en su sesión de fecha 6/3/2018, se autorizó el inicio del expediente para la adjudicación, por Procedimiento Abierto, de las OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE LA AVENIDA ALGORTA (ENTRE TORRENE Y MARIANDRESENA) – 2ª FASE- Y CALLE MARIANDRESENA, incluida en un proyecto que se aprobó en el mismo acuerdo.

Las características principales del contrato son las siguientes:

- El presupuesto de la obra, I.V.A. incluido, asciende a 549.798,19 euros, de acuerdo con el proyecto técnico que presenta para su aprobación.
- El plazo de ejecución del contrato será como máximo de 20 semanas, a contar desde la suscripción del Acta de Comprobación del Replanteo.
- El valor estimado del contrato asciende a 681.568,01 euros, teniendo en cuenta la posibilidad de modificación del mismo, consistente en un incremento máximo del 50% del importe de licitación, I.V.A. incluido.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación es publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia el día 7/3/2018.

Finalizado el plazo de licitación, presentan oferta las siguientes dos

empresas:

1.- EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO S.L.
2.- ASFALTOS URIBE S.A.

1.- EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO S.L.
2.- ASFALTOS URIBE S.A.

HIRUGARRENA: 2017-03-16an, Kontratazio Mahaiak eskuordetuta (Mahaiaren 2015-06-19ko Erabakiaren bidez) jarduten duen pertsona bakarreko administrazio organoa den aldetik, Ondare, Kontratazio eta Erosketako arduradunak egindako jendaurreko ekitaldian lehenengo gutun-azala ireki zen, dokumentazio orokorra biltzen zuena. Aurkeztu diren bi eskaintzak baliodunak dira. Bigarren gutun-azala, eskaintza teknikoa daukana, ireki da. Azken hori Azpiegitura eta Zerbitzu Sailari bidali zaio, balora dezan.

TERCERO.- En fecha 16/3/2017, en acto público celebrado por la Responsable de Patrimonio, Contratación y Compras, como órgano administrativo unipersonal que actúa por delegación de la Mesa de Contratación (delegación otorgada mediante Acuerdo de la Mesa de fecha 19/6/2015), se realiza la apertura del sobre primero -conteniendo la documentación general-. Las dos ofertas presentadas se aceptan como vlaidas, procediéndose a la apertura del sobre sobre segundo, conteniendo la oferta técnica, siendo esta última remitida al Departamento de Infraestructura y Servicios para su valoración.

LAUGARRENA: 2017-10-30ean Azpiegitura Unitateko buruak modu automatikoan ebaluatu ezin diren irizpideen baloraziori buruzko txostena egin zuen, eta honako puntuazio hauek eman zituen:

CUARTO.- En fecha 30/10/2017 el Jefe de la unidad de Infraestructura emite dicho informe de valoración de los criterios no evaluables automáticamente, otorgando las siguientes puntuaciones:

BOSGARRENA: 2018-04-17an, teknikari eskudunak modu automatikoan ebaluatu ezin diren irizpideen baloraziori buruzko txostena egin zuen, emaitza honekin:

QUINTO.- En fecha 17/4/2018 el técnico competente emite dicho informe de valoración de los criterios no evaluables automáticamente, con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br><br>EMPRESA | OBRAREN AZTERLANA (GEHIENEZ 29 PUNTU)<br><br>ESTUDIO DE LA OBRA (HASTA 29 PUNTOS) | LANEN PLANGINTZA (GEHIENEZ 12 PUNTU)<br><br>PLANNING DE LOS TRABAJOS (HASTA 12 PUNTOS) | UKIPENEN MURRIZKETA (3 PUNTU GEHIENEZ)<br><br>REDUCCION DE AFECCIONES (HASTA 3 PUNTOS) | GUZTIRA, 46 PUNTUTIK<br><br>TOTAL SOBRE 46 PUNTOS |
|---|---|---|---|---|
| EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L. | 25.00 | 10.00 | 4.00 | 39.00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ASFALTOS URIBE | 16.00 | 6.00 | 2.00 | 24.00 |

Kontratazio Mahaiak 2018-04-20an egindako bileran balorazio txosten horren berri eman zuen, hori aztertu eta osorik onetsi zuela.

En sesión celebrada el día 20/4/2018, la Mesa de Contratación da cuenta del citado informe de valoración, el cual es analizado y asumido en su integridad.

Gero, modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideak jasotzen zituen gutun-azala zabaldu zuen mahaiak; hona hemen lortutako emaitza:

Seguidamente la Mesa procede a la apertura del sobre correspondiente a los criterios evaluables de forma automática, con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br><br>EMPRESA | ESKAINTZA EKONOMIKOA (gehienez 35 puntu)<br><br>OFERTA ECONOMICA (Hasta 35 puntos)<br><br>454.378,67.- €/BEZik gabe<br><br>454.378,67.- €/sin IVA | HOBEKUNTZA AUTOMATIKOAK (gehienez 8 puntu)<br><br>MEJORAS AUTOMATICAS (Hasta 8 puntos) | BERME-ALDIAREN LUZAPENA (6 puntu gehienez)<br><br>AUMENTO DEL PLAZO DE GARANTIA (Hasta 6 puntos) | ARGIZTAPEN-EKIPOEN BERME-ALDI ESPEZIFIKOAREN LUZAPENA (12 puntu gehienez)<br><br>AUMENTO PLAZO GARANTÍA ESPECÍFICO DE LOS EQUIPOS DE ALUMBRADO (Hasta 12 puntos) |
|---|---|---|---|---|
| EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L. | 392.128,79 | Zolata, 9.700 €<br>Solado por importe de 9.700 € | 4 urte<br>4 años | 10 urte<br><br>10 años |
| ASFALTADOS URIBE, S.A. | 431.659,74 | Zolata, 9.700 €<br>Solado por importe de 9.700 € | 4 urte<br>4 años | 10 urte<br><br>10 años |

Modu automatikoan ebalua daitezkeen irizpideei buruz egin beharreko balorazioa zaila zenez, Kontratazio Mahaiak hori proposatu duen Sailera (Azpiegiturak eta Zerbitzuak) bidaltzea erabaki zuen, honako hauei buruzko txostena egin zezan:

- Aurkeztutako proposamen ekonomikoetan ezohiko balioak dauden ala ez.
- Irizpide automatikoei dagokien puntuazioa esleituz.

A la vista de la complejidad de la valoración a realizar, por tratarse de varios criterios evaluables de forma automática, la Mesa de Contratación decide dar traslado al departamento proponente (Infraestructura y Servicios) a fin de que se emita informe acerca de:

- La existencia o no de valores anormales en las propuestas económicas presentadas
- Asignando la puntuación correspondiente a los criterios automáticos.

SEIGARRENA.- Txosten hori 2018/04/26an eman zuen sail egokiak,

SEXTO.- Dicho informe es emitido por el Departamento correspondiente en

emaitza honekin:

fecha 26/4/2018, con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br><br>EMPRESA | ESKAINTZA EKONOMIKOAREN PUNTUAK (35 PUNTU GEHIENEZ)<br><br>PUNTOS OFERTA ECONOMICA (HASTA 35 PUNTOS) | BERME-ALDIA LUZATZEA (6 PUNTU GEHIENEZ)<br><br>AUMENTO DEL PLAZO DE GARANTIA (HASTA 6 PUNTOS) | ARGIZTAPENAREN BERME-ALDIA LUZATZEA (5 PUNTU GEHIENEZ)<br><br>AUMENTO PLAZO GARANTIA ALUMBRADO (HASTA 5 PUNTOS) | HOBEKUNTZA AUTOMATIKOAK (8 PUNTU GEHIENEZ)<br><br>MEJORAS AUTOMATICAS (HASTA 8 PUNTOS) | IRIZPIDE AUTOMATIKOEN PUNTUAZIOA GUZTIRA<br><br>PUNTUACION TOTAL CRITERIOS AUTOMÁTICOS |
|---|---|---|---|---|---|
| EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L. | 35,00 | 6,00 | 5,00 | 8,00 | 54,00 |
| ASFALTADOS URIBE | 31,79 | 6,00 | 5,00 | 8,00 | 50,79 |

Kontratazio Mahaiak 2018-05-02an egindako bilkuran, aipatutako txostenaren berri eman zen. Hura ikusita, eta automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideen balorazioa ikusita, proposatu du kontratu hau EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L. enpresari, B-48689301 IFK, adjudikatzea.

En sesión celebrada por la Mesa de Contratación el día 2/5/2018 se da cuenta del antedicho informe. Visto el mismo y vista la valoración de los criterios evaluables de forma no automática, propone adjudicar el contrato de referencia a la empresa EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L. con CIF: B-48689301.

Adjudikazio hau balorazio koadro honetan oinarritu da:

La citada adjudicación se realiza de acuerdo con el siguiente cuadro de valoración:

| ENPRESA<br><br>EMPRESA | IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN PUNTUAZIOA<br><br>PUNTUACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS | IRIZPIDE AUTOMATIKOEN PUNTUAZIOA<br><br>PUNTUACION CRITERIOS AUTOMÁTICOS | PUNTUAZIOA GUZTIRA<br><br>PUNTUACION TOTAL |
|---|---|---|---|
| EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L. | 39,00 | 54,00 | 93,00 |
| ASFALTADOS URIBE. | 24,00 | 50,79 | 74,79 |

ZAZPIGARRENA: 2018-05-04an aipatutako enpresari dei egin zitzaion, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 146.4. eta 151. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, eta espedientean lizitatzaileak kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen zituela,

SÉPTIMO.- En fecha 4/5/2018 se requiere a la citada empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, constando en el expediente la acreditación documental del cumplimiento por parte del licitador de las condiciones establecidas legalmente para contratar, de disponer

kontratua betetzeko konprometitutako bitarteko material eta pertsonalekin zeuzkala (BTParen 3.23 idatz-zatian jasoak), eta 19.606,44 euroko zenbatekoan behin betiko bermea eratu zuela zioten ziurtagiriak zeuden.

para la ejecución del cntrato con los medios materiales y persnales comprometidos (los recogidos en el apartado 3.2 del PCT), así como de haber constituido garantía definitiva por importe de 19.606,44 euros.

ZORTZIGARRENA: Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezarri dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan adierazitako eginkizunak garatu beharko ditu.

OCTAVO.- El Coordinador en materia de Seguridad y Salud deberá desarrollar las funciones contenidas en el artículo 9 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, que establece las Disposiciones mínimas de Seguridad y Salud en las obras.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- Aplikagarria den legeriak zehazten du ondorengo araudia:

1.- La legislación aplicable es la que determina la normativa siguiente:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak onartutakoa.

- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, kontratuen legearen zati bat garatzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la ley de contratos, en lo que no se oponga al TRLCSP.

- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen araudi orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onetsia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

- Reglamento general de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en lo que no se oponga al TRLCSP.

2.- Proposatzen den adjudikazioa Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio kontratu-espediente honetan kontratazio-organo eskuduna izateagatik.

2.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone, por ser el órgano de contratación competente en el presente expediente contractual.

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA: "EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L." enpresari, B-48689301 IFK, adjudikatuko zaio aipatutako obra, 392.128,79 eurotan, gehi 82.347,05 €, BEZaren % 21ekoak, hau da, guztira 474.475,84 euro.

PRIMERO: Adjudicar a la empresa "EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, S.L." con CIF: B-48689301, la obra de referencia, por importe de 392.128,79€, más 82.347,05€ correspondientes al 21% de I.V.A., lo que suma un total de 474.475,84 euros.

Adjudikazioa adjudikazio irizpideei emandako puntuazioen arabera egin da. Proposamen honen seigarren aurrekarian jasotakoak dira.

La adjudicación se realiza sobre la base de las puntuaciones asignadas a los diferentes criterios de adjudicación, y que resumidamente se recogen en el antecedente sexto de esta resolución.

BIGARRENA: Kontratua betetzeko epea 20 (hogei) astekoa izango da, zuinketa egiaztatzeko aktaren datatik zenbatzen hasita.

SEGUNDO: El plazo de ejecución del contrato será de 20 (veinte) semanas, a contar desde la fecha del Acta de Comprobación de Replanteo.

Adjudikaziodunak eskainitakoaren arabera, berme orokorraren epea 5 (bost) urtekoa izango da.

El plazo de garantía general, de acuerdo con lo ofertado por la adjudicataria, será de 5 (cinco) años.

Adjudikaziodunak eskainitakoaren arabera, argiztapen ekipoen berme zehatzaren epea 11 urtekoa izango da.

El plazo de garantía específico de equipos de alumbrado, de acuerdo con lo ofertado por la adjudicataria, será de 11 años.

Egin beharreko hobekuntzak adjudikaziodunak bere eskaintzan sartutakoak izango dira (3. gutun-azala).

Las mejoras a acometer serán las incluidas por el adjudicatario en su oferta (sobre 3).

HIRUGARRENA: Obraren egikaritze-fasean, RCS ARQUITECTURA Y PREVENCION S.L.P. enpresa Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaile izendatuko da; zehazkiago, Itxaso Rodríguez izango da koordinatzailea (ordezkoa: Sandra Río Moráis). Eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun baldintzak ezarri zituen urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuaren 9. artikuluan adierazten diren eginkizunak bete beharko ditu

TERCERO: Nombrar Coodinador en materia de Seguridad y Salud durante la fase de ejecución de la obra, a la entidad RCS ARQUITECTURA Y PREVENCION, S.L.P., en la persona de Itxaso Rodríguez (suplente: Sandra Río Moráis), con el mandato de cumplir con las funciones contenidas en el artículo 9 del R.D. 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en obras de construcción.

koordinatzaileak.

LAUGARRENA: Adjudikaziodunak lanerako segurtasun eta osasun plana egin beharko du. Plan hori segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileari aurkeztu beharko zaio, horrek txostena egin dezan.

CUARTO: El adjudicatario está obligado a elaborar un Plan de Seguridad y Salud en el trabajo. Dicho Plan deberá ser presentado al Coordinador en materia de Seguridad y Salud para que éste emita el correspondiente informe.

BOSGARRENA: Kontratua betetzeko izendatuko diren langileei aplikatu beharreko lan hitzarmena Bizkaiko eraikuntza hitzarmena izango da.

QUINTO: El Convenio laboral de aplicación a los trabajadores que han de realizar los trabajadores será el de Construcción de Bizkaia.

SEIGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 156.3. artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan (helbidea: Foru kalea, 8) aurkeztu beharko du kontratua administrazio dokumentu gisa gauzatzeko, hamabost laneguneko gehieneko epean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

SEXTO: El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.3 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, formalización que se efectuará en el plazo máximo de los quince días hábiles siguientes a aquél en que se reciba la notificación de la presente resolución y para la cual será debidamente avisado.

ZAZPIGARRENA: Ebazpen hau lizitatzaile guztiei jakinaraztea, eta, gainera, balorazio-txostenak bidaltzea, honako hauek, hain zuzen:

- modu automatikoan ebaluatzen ez diren irizpideei buruzko 2018-04-17ko txostena.
- modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideei buruzko 2018-04-26ko txostena.

SÉPTIMO: Notificar a los todos los licitadores la presente resolución junto con copia de los informes de valoración emitidos, a saber:

- el emitido en fecha 17/4/2018 en relación con los criterios no evaluables de forma automática.
- el emitido en fecha 26/4/2018 en relación con los criterios evaluables de forma automática.

**269.-ESLEIPENA: ERREKAGANEKO PABILOIEN INGURATZAILEAREN PROIEKTUA IDAZTEA ETA OBRA ZUZENDARITZA ZERBITZUA.**

**269.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN DE PROYECTO Y DIRECCIÓN DE OBRA PARA LA ENVOLVENTE DE LOS PABELLONES DE**

**ERREKAGANE.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2017-10-03an ohiko bilkuran hartutako 408. erabakiaren bidez, espedientea hasteko baimena eman zen, prozedura irekiaren bidez ERREKAGANEKO PABILIOIEN BILGARRIRAKO PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENTZEKO ZERBITZUA adjudikatzeko.

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por Acuerdo nº408 adoptado por la Junta de Gobierno Local, en su sesión de fecha 3/10/2017, se autorizó el inicio del expediente para la adjudicación, por Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE REDACCIÓN DE PROYECTO Y DIRECCIÓN DE OBRA PARA LA ENVOLVENTE DE LOS PABELLONES DE ERREKAGANE.

Kontratu honetarako finkatutako ezaugarri nagusiak honako hauek izan dira:

Las características principales que se fijaron para este contrato son las siguentes:

- Kontratuaren gehieneko prezioa 95.000 (laurogeita hamabost mila) € izango da, % 21eko BEZa barne. Lizitatzaileek diru-zenbateko hori hobetu ahalko dute.

- El precio del contrato será como máximo de 95.000 (noventa y cinco mil) euros, IVA del 21% incluido, cantidad que podrán mejorar los licitadores.

- Kontratu honen balioa 78.512,40 euro izango dela aurreikusi da.

- El valor estimado del contrato 78.512,40 euros.

- Kontratua betetzeko epea BTParen 18. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorri behar da. Bertan, kontratuaren prestazio bakoitzeko egikaritze epeak sartzen dira, haren Obra Zuzendaritza barne.

- El plazo de ejecución del contrato se acomodará a lo dispuesto en el apartado 18 del PCT, en el que se prevén plazos de ejecución de cada prestación del contrato, incluída la Dirección de obra que forma parte del mismo.

BIGARRENA.- Derrigorrezko lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017-10-13an.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación es publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia el día 13/10/2017.

Lizitazioaren epea amaitu zenean, sei eskaintza aurkeztu ziren:

Finalizado el plazo de licitación, se presentan las siguientes seis ofertas:

1.- PAUL BASAÑEZ ALLENDE
2.- MAAR ESTUDIO DE ARQUITECTURA S.L.P.
3.- A4 ARQUITECTOS
4.- HUMBERTO FERNANDEZ PASCUAL
5.- U.T.E. AURTENECHEA & PEREZ IRIONDO ARQUITECTOS ASOCIADOS- DAVID MEÉNDEZ
6.- ESTUDIO K SDAD. COOP.

1.- PAUL BASAÑEZ ALLENDE
2.- MAAR ESTUDIO DE ARQUITECTURA S.L.P.
3.- A4 ARQUITECTOS
4.- HUMBERTO FERNANDEZ PASCUAL
5.- U.T.E. AURTENECHEA & PEREZ IRIONDO ARQUITECTOS ASOCIADOS- DAVID MEÉNDEZ
6.- ESTUDIO K SDAD. COOP.

HIRUGARRENA.- 2017-10-31n, Kontratazio Mahaiak eskuordetuta (Mahaiaren 2015-06-19ko Erabakiaren bidez) jarduten duen pertsona bakarreko administrazio organoa den aldetik, Ondare, Kontratazio eta Erosketako arduradunak egindako jendaurreko ekitaldian lehenengo gutun-azala ireki zen, dokumentazio orokorra biltzen zuena.

TERCERO.- En fecha 31/10/2017, en acto público celebrado por la Responsable de Patrimonio, Contratación y Compras, como órgano administrativo unipersonal que actúa por delegación de la Mesa de Contratación (delegación otorgada mediante Acuerdo de la Mesa de fecha 19/6/2015), se realiza la apertura del sobre primero -conteniendo la documentación general-.

Agiriotan atzemandako akatsak eta omisioak ikusita, interesdunei horiek zuzentzeko agindu behar zaie.

A la vista de los defectos y omisiones detectados en dicha documentación, se procede a requerir a los interesados para la oportuna subsanación de aquéllos.

LAUGARRENA.- Zuzenketen epea amaitutakoan, arestian aipatutako pertsona bakarreko organoak jendaurreko ekitaldi berria egin zuen 2017-11-16an, eta bertan bigarren gutun-azala ireki zuen, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI dagokiena (eskaintza teknikoa). Proposamena egin duen sailari (Arkitektura) bidali zitzaion eskaintza, balora zezan.

CUARTO.- Una vez transcurrido el plazo de subsanación, el órgano unipersonal antes citado procede en un nuevo acto público celebrado el día 16/11/2017, a la apertura del sobre segundo, correspondiente a los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA (oferta técnica), siendo esta última remitida al departamento proponente (Arquitectura) para su valoración.

BOSGARRENA.- Txosten hori teknikari eskudunak eman zuen 2018-04-27an, eta puntuazio hauek eman ziren:

QUINTO.- Dicho informe es emitido por el técnico competente en fecha 27/4/2018, siendo las puntuaciones obtenidas las siguientes:

| **KONTZEPTUA**<br><br>**CONCEPTO** | **Gehi. punt. Punt. Máx.** | **LIZITATZAILEEK LORTUTAKO PUNTUAZIOA**<br><br>**PUNTUACION OBTENIDA POR LICITDORES** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **A4** | **Aurten.** | **Estudio K** | **Fernán.** | **MAAR** | **Basáñez** |
| Arkitektura-osagaia<br>Composición arquitectónica | 20 | 10 | 20 | 5 | 5 | 10 | 5 |
| Materialak<br>Materiales | 5 | 5 | 5 | 3 | 5 | 3 | 5 |
| Ingurunearekin integratzea<br>Integración con el entorno | 2 | 1 | 2 | 0 | 1 | 2 | 1 |
| Originaltasuna<br>Originalidad | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| Ingurumen-balioak<br>Valores medioambientales | 20 | 18 | 20 | 20 | 20 | 18 | 20 |
| GUZTIRA<br>TOTAL | **49** | **36,00** | **49,00** | **29,00** | **32,00** | **35,00** | **33,00** |

Kontratazio Mahaiak, 2018-05-08an egindako batzarrean, balorazio-txosten horren berri eman zuen. Txostena aztertu eta onartu egin zuen.

En sesión celebrada el día 8/5/2018, la Mesa de Contratación da cuenta del informe de valoración antedicho, el cual analiza y asume.

Gero, modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideak jasotzen zituen gutun-azala zabaldu zuen mahaiak; hona hemen lortutako emaitza:

A continuación la Mesa procede a la apertura del sobre correspondiente a los criterios evaluables de forma automática, con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br><br>**EMPRESA** | **ESKAINTZA EKONOMIKOA (gehienez 51 puntu)**<br><br>**78.512,40.-€/BEZ gabe**<br><br>**OFERTA ECONOMICA (Hasta 51 puntos)**<br><br>**78.512,40.-€/sin IVA** |
|---|---|
| HUMBERTO FERNANDEZ PASCUAL | 66.735,54.-€ |
| ESTUDIO K. S. COOP. P. | 54.173,56.-€ |
